

# BEÑAT ARRABIT

**I**par Euskal Herriko hizkuntza politikaz dudan ikuspegia emateko ohorea orain dela laburrik sortu den Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikako lehendakariorde karguari, baita Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) lehendakari hautatuaren karguari ere, atxiki zaizkio.

Kontuan izan behar dugu Euskal Elkar-goia 2017an sortu eta lehen deliberoetarik bat izan dela euskararen defendatzeko eskumena hartzea. Alderdi guzietako hautetsiek kasik aho batez bozkatu zuten horren alde.

Sasoin batean, hainbertze tentsione eragiten zituen gai horren inguruan, arduradun politikoez egungo egunean erakutsi atxikimendua bihotz altxagarri da. Normal ote da, baina, gurean euskara defendatu behar izatea?

10.000 urtetan bizirik iraun duen hizkuntza honek, lehenik ahozkoan, eta ondotik idatziz ere bai, ez zuen sekula honelako gainbeherarik jasanen, baldin eta delibero politiko batzuek ez bazuten haren ahultzea eragin. Frantses monarkiak Europako gorte guzietan administrazio hizkuntza zen frantsesaren erabilera finkatzea zuen helburu, urrunago joan gabe.

Tokiko hizkuntzen kontrako lehen eraso bortitzenak iraultzaren garaian egin ziren. Hori ez zen izan, haatik, segur aski, frantses iraultzaren bultzatzaile nagusien xedea.

Alta, garai iraultzailearen bigarren urtean, akta, lege eta dekretu guziak tokiko hizkuntzetara artean itzultzen zirenean, itzulpenak alde batera uzten hasi ziren, jada ekonomien egiteko.

Eraikin publiko anitzetan ikus dezakegun Frantziako Errepublikaren “Liberté, Égalité, Fraternité” goiburua 1789an ezarri zuten. Ideia hori hastapenetik txertatu zuten Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Aldarrikapenaren

**NUNDIK,  
NORAT!**

I. artikuluan. Baina, onartu gabe ere, tentazio handia izan zuten «berdintasuna» «uniformitate» bilakatzeko, eta garai hartako agintariak, zinez, tentaldian erori zen.

Orduan hasi zen frantsesa hizkuntza bakarra izateko borrokan. Tokiko hizkuntzak “mintzaira landugabe” edo “hizkera barbaro” izendatu zituztelarik, bortizki oldartu ziren haien kontra, eta orduko pentsamolde iraultzaileen sustatzaileen “frantsesa hizkuntza bakarra” zioen leloa “frantsesa ororen hizkuntza” edo “hizkuntza komuna” leloari gailendu zitzaion, nahiz eta azkena hobeki atxikitzen zitzaion berdintasun kontzeptuari.

Historiaren argitan, alde handiak hauteman ditzakegu! Alabaina, tokiko hizkuntzen orduko defendatzaileak iraultzaren kontrakotzat hartu ohi ziren, baina 200 urte berantago, tokiko hizkuntzen defendatzaileak iraultzailetzat jo ziren. Urte zombait geroago, Jules Ferry-k ere ekarria egin zion auziari, menturaz eraginkortasun handiagoz, eta frantsesezko hezkuntza lurralde osora hedatu zuen, garaikideek diotenez, frantsesa inposatzeko helburu bakarrari atxikia, hizkuntza horrek bakarrik frantses guziak herritar bilaka zitzaizkela.

Orduan ere, hizkuntza bakarraren aldeko hautuak bultzatu zituen agintari politikoak, hizkuntza komunaren kaltetan. Horren ondorioz, mende eskas batean, euskara berezko eremutik desagertzeko zorian zen.

Zonbait ikerketak eragindako kalteak neurtu dituzte. Hala, datuek diotenez, frantsesen % 25ek tokiko hizkuntzetarik bat hitz egiten zuten 1900. urtean. 1990ean, berriz, %3 baizik ez ziren tokiko hizkuntzen eleketariak. Hala berean, datuek erakusten digute 1806ko erroldan biztanleen %100 tokiko hizkuntzaren bateko hiztun zirela. 1951n emandako lege berri batek onartu zuen tokiko hizkuntzen erabilera irakaskuntzan. Azkenik, 2016ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzek diote Ipar Euskal Herrian eskolatuak diren haurren %45 irakaskuntza elebidunean edo murgiltze ereduaren aritzen dela edo pareko orduak dituztela euskaraz eta frantsesez.

Begi bistakoa da murgiltze ereduak dituela euskara lehen urteetan ikasteko emaitza onenak ematen. Baina hori ez da aski! Zinez eraginkorra izateko, eskolako lehen urteetan murgiltze eredu orokortu behar litzateke.

Euskararen kontrakoek 200 urtez erran dutenaz beste, euskarazko irakaskuntzak emaitza onak ematen ditu. Hau da hau "hizkera barbaroaren" edo «mintzaira landugabearen» errebantxa!

Hala ere, 2016ko inkestak erakusten digu euskararen eguneroko erabilera gibelka doala. Horren aitzinean, lurralde antolaketa berriaren arabeko hizkuntza politika asmatu eta obratu behar da. Enpresetan, administrazioan, irakaskuntzan euskara gehiago erabiltzeko neurriak proposatuz eta hizkuntza pasaia elebidunduz dugu gainbehera geldituko.

Gure hizkuntzaren jatorriaz ikertzen aritu diren ikertzaileek diote gure hizkuntza *isolatua* dela, eta ez duela loturarik beste hizkuntza batzuekin. Nik, menturaz, ikuspegi sinplistegiari heldurik, pentsatzen dut oraino bizi den lurraldean sortu zela. Ildo horretan, Historiaurreko aztarnek frogatzen digute gizakiak aspaldian bizi zirela Euskal Herrian. Hortaz, ez da zentzugabea pentsatzea ahozko komunikazioa bermatzeko tresna tokiko jendeak asmatu eta garatu zuela.

Nolako emaitzak lortuko genituzke, bada, gure hizkuntza politikaren neurri sorta ederra asmatu, baina gizartearen gehiengoak bere burua partaide ikusiko ez balu? Hor dugu erronka, euskara erabili behar da. Gure hizkuntza-politika hautetsiekin asmatu behar dugu, bistan dena, baina ere euskararen defentsan sartuak edo interesatuak diren elkarte, egitura eta gizarteko jende ororekin.

Lehen aldikotz Iparraldean, lan luze baten ondotik Euskal Hirigune Elkargoa

sortu delarik, Ipar Euskal Herri osoaren neurriko ekintzak garatzeko parada izanen dugu. Baina euskararen sustapena ez da Iparraldera mugatzen. Euskadi eta Nafarroa lankide izan behar ditugu. Harremanak baditugu jadanik, baina elkarlana bixkortu behar dugu, gure esperientzietarik elgar elikatzeko.

Planeten lerrokatze egokiari esker, erakunde horiek guziek euskararen alde lan egiteko atxikimendua eta gogoia adierazi dute. Euskal Autonomia Erkidegoak eskarmentu handia dauka eta hango eragileek aholkuak emanen dizkigute gauzak fiteago eta hobeki egin ditzagun. Gogoz lotuko natzaio lanari. Gure belaunaldiak duen arduraz jabetzen naiz. Azken hilabete hauetan, eragile guziek, bakoitzak bere alorrean, adierazitako nahia eta itxaropena neurtu ditut. Frantziako Estatuak ere badu gure hizkuntza defendatzeko ardura; hezkuntza sisteman jadanik engaiatua da, baina gehiago egin behar du. Frantsesa ere indarturik aterako baita.

Frantziako nazio-estatu eraikitze prozesu luzean, hizkuntzaren auzia nazioaren eratzaila izan zen, baina eskualdeetako hizkuntzen kaltetan. Egun, hezkuntza-sistema nazionalak tokiko 13 hizkuntza irakasteko aukera ematen du eskoletan. Euskarari dagokionez, hori lehen urratsa besterik ez da. Sistema sendotu eta hobetu behar du, hiltzorian dagoena hilgo duen muxua baino, bizia emango dion hatsa izan dadin.

2008an, konstituzioaren aldaketa baten ondorioz, artikuluko batek onartu zuen tokiko hizkuntzak Frantziako ondare direla. Inolako eraginik ez duen ohar bat, besterik ez.

Euskara garatu, zertarako? Hizkuntza gure nortasun partekatuaren elementu bat izanik, lehentasuna izan behar du. Pertsona gisa aberasten gaitu, kultura, literatura, bertsolaritza, poesia eta kantuen atea zabaltzen dizkigulako. Kantxetan ere berriz entzun beharko dugu. Gaztetik euskaraz mintzatzeak beste hizkuntza batzuk ikasteko prestatzen ditu gure burmuinak. Hortaz, lana atzemaiteko eta gizarte-loturak sendotzeko lagungarria da. Gure lurraldearentzat, berriz, sortzen duen kurostasunagatik, euskara gai erakargarria da. Etorkizuna gure esku dago. Gure lanari eta engaiamenduari esker, salbatuko dugu gizadi osoarena den ondare ukiezin hau.

**Euskara orain 10.000 urte eta 10.000 urte barne, hor dugu desafioa.**